

IRABAZI ITURRIAK

Irabazi iturriak, bezeroek gure eskaintzazatik zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden jakitea garrantzitsua da. Horrek enpresari bere eskaintza egokitzen eta hobetzen lagunduko dio. Irabazi iturriak produktuak, zerbitzuak edo beste elementu batzuen salmentatik etor daitezke.

Gure kasuan, hasieran, 50.000€-ko mailegua eskatuko diogu bankuari, eta guk ere, bakoitzak, 2.500€ jarriko ditugu gure poltsikuetatik. Guztira, 60.000€ izango ditugu hasierako inbertsioa guztiz ordaintzeko. Inbertsio honekin, gure negozioa martxan jartzeko beharrezko ekipamendua eta materialak erosi ahal izango ditugu, baita lehen hilabeteetako gastuak estaltzeko ere.



Gure negozioaren oinarritzko irabazi iturria menuen salmenta izango da. Astean 400 menu saltzea aurreikusten dugu, eta menu bakoitza 17€-tan salduko da. Horrek esan nahi du astean 6.800€-ko diru-sarrerak izango ditugula menuen salmentatik, beraz hilabeteen 1600 menu saldua, 27.200€ irabaziko ditugula. Urtean 20.800 menu salduko ditugu eta orduan 353.600€-ko irabaziko ditugu menuekin. Urteko ikuspegitik, menuen salmentak gure negozioaren diru-sarrera nagusia osatuko du %99,70a zehazki. Gainera, menuen kalitatean eta zerbitzu azkarrean oinarrituko gara bezeroen leialtasuna irabazteko.

Beste irabazi iturri bat taperren salmenta izango da. Tuperrak etxera eramaten dituzten bezeroei zuzendutako produktu osagarria izango dira. Guk tuper bakoitza erosi dugun prezioa baino 3€ gehiagotan salduko dugu, hau da, guri kostatzen zaiguna baina %3 gehiago eta horrela, tuper bakoitzeko 3€-ko irabazi garbia lortuko dugu. Tuperrak hainbat tamaina izango dituzte, baina guztiak prezio-eskema berdinarekin salduko dira, eta horrek irabazi kalkulua errazten du. Tuper salmentak diru-sarrera gehigarriak ekarriko dizkigu eta, gainera, gure bezeroei erosotasun handiagoa eskainiko die. Hilabeteen 30 tupper saltzea aurre ikusten dugu hau da tupperrekin 90€ irabaziko ditugu. Urtean 1080€ irabaziko ditugu. Tuperrak gure diru-sarreraren 0,3%-a izango dira.

Menuen diru sarrerak eta tupperen diru sarrerak bateratuta hilabeteen 27.290€ irabaziko ditugu, horrek esan nahi du urtean 354.680€ ko irabaziak izango ditugu. Gure kostu totalak hilabeteen 23.512€ izango dira eta gure diru sarrerak 27.290€ berriz, honek esan nahi du gure diru-sarrerak kostuak baino handiagoak direla eta gure enpresa errentagarria dela.

Horretaz gain, gure negozioa hazi ahala eta bezero gehiagoren konfiantza irabazten dugun heinean, beste irabazi iturri batzuk aztertuko ditugu, hala nola, catering zerbitzuak edo online eskaeren kudeaketa. Gure helburua ez da soilik diru-sarrerak sortzea, baizik eta gure negozioa hazten jarraitzea eta gure bezeroen beharrak betetzea modu eraginkorrean.